

Egiaztagiria: Udaltzazak 2020ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran COVID-19 AREN ERAGINA ARINTZEKO NEURRIAK JASOTZEN DITUEN SUSTAPENENKO PLAN INTEGRALA onartu zuen, COVID-19ak sortu duen krisiari modu koordinatuan aurre egiteko. Izan ere osasun krisia ekonomiara eta gizartera heltzen ari da, eta produkzio jarduerari, eskariari eta herritarren ongizateari eragiten ari zaie.

Dokumentu honek Udaltzaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plen Estrategikoa osatzen du (Udaltzazak 2020ko maiatzaren 5ean onartua).

COVID-19 AREN ERAGINA ARINTZEKO NEURRIAK JASOTZEN DITUEN SUSTAPENENKO PLAN INTEGRALA

TESTUINGURUA/ KOKAPENA

2020ko martxoaren 11n Munduko Osasun Erakundeak COVID-19ak eragindako osasun publikoko emergentzi egoera nazioarteko pandemia deklaratu zuen.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren kudeaketarako ALARMA EGOERA deklaratu zen.

Alarma egoeraren deklarazioak eragin zuzena izan du herritarren eguneroko bizitzan, bai beraien mugitzeko askatasunean zein beste eskubide batzuen egikaritzan.

Eraginak eta ondorioak zehazki zerrendatu ezin badaitezke ere hona hemen agerikoenak:

1.- ZAINTZAREN EREMUAN:

A) Hezkuntza zentroen itxierak duen eragina ikasleen zaintzari dagokionez. Nagusiki adin txikikoen eremuan.

B) Erresidentzia, eguneko zentro nahiz adineko edota mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzara bideratutako zentroen itxierak.

C) Lana eta familia kontziliatzeko zailtasunak.

2.- TOKIKO EKONOMIAREN EREMUAN:

A) Komertzio txiki nahiz bestelako establezimenduen itxiera aginduak sortzen dituen galerak.

B) Autonomoen egoera larria, gastu finkoei (lokalen alokairu gastuak, kuoten ordainketa,...) aurre egiteko zailtasunak sarreraren gutxitze -eta askotan sarrerarik gabe-aren aurrean.

C) Enpresen zailtasunak aurrera egiteko, lan kargari eusteko eta plantillako langileak mantentzeko. Aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen ugaltzea eta zenbait kasutan kaleratzeak.

3.- GIZARTE BABESAREN EREMUAN:

Zaurgarrienak diren kolektiboen zailtasunak egunerokoari aurre egiteko eta oinarrizko beharrei erantzuteko, horretarako babes sare integral baten beharra nabarmenduz.

* Zeharkako bestelako ondorioak

EKINTZA PLANA

Alarma egoeraren deklarazioaz geroztik kontagioak geratzeko hartutako neurri ezberdinak norbanakoetan, eta arlo sozial eta ekonomikoan eragin oso garrantzitsua izan dute. Eta eragin hori minimizatzeko helburuarekin gure udalerrian, ekimen publiko nahiz komunitario ezberdinak jarri dira martxan.

Beti ere gure eskumenen baitan eta gainontzeko Herri Erakunde eta entitateek martxan jarri ditzaketek ekimenen kalterik gabe noski.

Lehen aste hauetan pertsonak izan dute lehentasuna. Inor ez geratzea baztertuta. Eta horretan aritu gara, herritarrei entzun, beharrak detektatu eta hauei erantzungo dien babes sistema integral bat eratzea izanik gure misioa. Eta hori guztia egun gutxitan, inmediateki erantzun beharra zegoelako. Azkartasuna ez dagoelako zuhurtziarekin borrokan. Eta horretara bideratu ditugu eskura genituen giza baliabide eta ekonomiko guztiak.

Baina jakitun gara ere, hau hasi besterik ez dela egin eta gainera pandemiaren aurkako konfinamenduaren deseskalatzeko neurriak hartu ahala errealitatea egun somatzen duguna baino konplexuagoa izango dela.

Alarma egoeraren iraupenaren inguruan ere ziurgabetasuna da nagusi eta testuinguru honetan guri, udaloi EGITEA DAGOKIGU- Egitea eta herritarrei ziurtasuna eta segurtasuna eskaintzea. Beti ere tokiko autonomia eta subsidiariedade printzipioen baitan. Udalok gara herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea eta guri dagokigu beraien beharrei erantzun egoki bat ematea, eraginkortasunez.

Pertsonak izan behar ditugu erdigunean, beraiek direlako gure oinarri eta helburu, eta honekin batera gure udalerriko sare sozial eta ekonomikoa zaindu behar dugu. Ezinbestekoa zaigu beraz esku hartzea.

Horretarako, herriko eragile ezberdinekin lehen kontrasteak egin ditugu eta harremanetan jarraituko dugu.

Plan honetan aurreikusten diren ekintzek ikuspegi bikoitza dute:

A) Berehalakoak: Bizitzen ari garen egoeraren eragina arintzea helburutzat dutenak.

B) Epe ertainekoak: Suspertze ekonomikoa sostengatzeko neurriekin eta ekonomikoki eta populazioko alderdi zaurgarrienak babesten jarraituz. Eta horrekin batera estrategikoenak direla ulertzen ditugunak lagunduz.

Ekimen konkretuak azaltzeko garaian bi ildo jarraituko dira:

1.- Etxeko edota norbanakoen egunerokotasunean eragina izango dutenak.

2.- Tokiko ekonomi sarea osatzen duten sektore ekonomiko ezberdinetan eragina izango dutenak.

Bi lerroak oinarritzkoak dira komunitatearen kohesiorako.

Eta aurretik aipatu bezala, esan, jarraitu beharreko lan ildo eta estrategikoak bizia eta dinamikoa izan behar duela. Denborak zehaztuko dizkigu behar eta lehentasunak. Eta hauei erantzuteko neurri berriak hartu beharko ditugu. Horrekin batera, kontuan izan beharko ditugu udalez gaindiko eremuetan tokiko beharrak asetzeko hartzen dituzten neurriak. Beti ere hurbiltasun, osagarritasun eta bateragarritasun printzipioak aintzat hartuta.

Adierazi, plan honetan jasotzen ditugunak une honetako beharrei erantzuteko ezinbestekotzat ematen ditugun lehen neurrien sorta osatzen dutela. Egoeraren urgentziak martxan jartzea eskatzen diguna, gehiago atzeratu gabe eta beste Erakundeek ekimenei itxoin gabe.

Plan hau osatzerakoan, udaleko teknikari nahiz eragile ezberdinen ekarpenak izan dira kontuan. Bertan jasotzen diren ekimen batzuk martxan jarriak daude, beste batzuk epe laburrean aterako dira. Baina honetaz gain, eta batez ere **epe ertainera** begira – *ERTEak gehienez ere ekainaren 30era arte luzatuko dira, langabezi tasaren igoera...*-hartu beharko diren neurriek; besteak beste,

langabetuen kontratazioaren sustapena, herriko gremioak nahiz beste arloak bizirik mantentzeko ekimenak..-egoeraren **DIAGNOSTIKO** bat egitea eskatzen dute. Eta orain aurkezten dugun Plan hau izango dugu ekimen ezberdin horien markoa eta sostengua.

Neurriak

Guztira 12 neurri jasotzen dira, egun arte udalez gaindiko beste administrazioak hartu dituztenak zabaldu eta osatu nahi dituztenak eta haserako 1.700.000,00 €ko aurrekontu estimazioa dutenak.

Sustapen Planaren finantzazioa

Aurrekontuari dagokionez, finantzazioa nondik datorren adierazi behar da. COVID-19aren ondorioz egin ditugun kreditu-aldaketan berri emanez, guztiak ere Diruzaintza Gerakinetik finantzatuak- (Martxoaren 16ko dataz onarturiko 600.000,00 €koa Alkatetzan jasotakoa eta oker ez banago maiatzaren 6ko dataz onarturikoa eta Ekonomia, Enplegua eta Formazioaren atalean txertatu dena 300.000,00 €ko zenbatekoarekin – hortik 250.000,00€ sustapen ekonomikoko laguntzetarako eta 50.000,00€ tokiko kontsumoa sustatzeko bonoetarako-

KREDITU ALDAKETAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.471.311.00.01 2020	COVID-19, MERKATARITZA	0,00	300.00,00	300.00,00
1 1000.480.311.00.01 2020	COVID-19, FAMILIA ZAINZA	0,00	300.00,00	300.00,00
GUZTIRA		0,00	600.000,00	600.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2020	G.O.DIRUZAINZA GERAKINA	600.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			600.000,00

KODEEN AZALPENA

A) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1100.471.241.00.01 2020	TRANSF.ARRUN TAK, EKONOMIA	150.000,00	250.000,00	400.000,00

	SUSTAPENA			
1 1100.480.430.00.01 2020	TRANSF.ARR.IND. MERK.ETA TURISMOA	31.000,00	50.000,00	81.000,00
GUZTIRA		181.000,00	300.000,00	481.00,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2020	G.O.DIRUZAINITZA GERAKINA	300.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			300.000,00

KODEEN AZALPENA

A) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

****Honekin lotuta eta Sustapen Plan honen onarpenarekin batera Azpeitiko Udaleko web orrian website bat edota Sozioekonomia Departamentuko Informazio Buletina jarriko nuke Azpeitiko Udaleko nahiz beste erakundeetako laguntzen linkak jasoz.***

COVID-19AK ERAGINDAKO KALTEA ARINTZERA BIDERATUTAKO NEURRIAK

1.- Zaintzarako laguntzak

2.- Txikizkako komertzio nahiz ostalaritza eta antzeko establezimien-duentzako diru-laguntzak

3.- Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako udal laguntzak

4.- COVID-19 birusak kaltebera ekonomikoan utzi dituen herritarren errenta nahiz mailegu gastuei erantzuteko diru-laguntza deialdia

5.- Babes publikoko etxebizitzetako maizterrak errenta ordaintzetik salbuestea

6.- Alokairurako diru-laguntzen deialdi orokorra

7.- Udal zergen ordainketen atzerapena eta salbuestea

SUSPERTZE EKONOMIKOA SOSTENGATZEKO NEURRIAK

8.- Tokiko kontsumoa sustatzeko bonoak eta ekimen hau eta antzekoak babesteko komunikazio kanpaina

9.- Etxeko gastuak finantzatu eta aldi berean gremioak mugitzen dituzten jarduerak diruz laguntzea: eraikuntzetako fatxaden birgaitzea, bizileku-erabileratarako eraikinetan dauden etxebizitzetan irisgarritasuna sustatzeko jarduerak...

10.- Herriko ekonomia sustatzeko diru-laguntzak:

10.1.-Merkataritza arloan eta lehen sektorean enplegua eta ekonomia sustatzera bideratutako diru-laguntzak

10.2.-Industria proiektu estrategiko edo berritzaileen bitartez enplegu sustapena finantzatzera bideratutako diru-laguntzak

10.3.-Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko diru-laguntzak

11.- Langabezia dauden pertsonen kontrataziorako laguntzak

12.- Formaziorako laguntzak

1	ZAINTZARAKO LAGUNTZAK
Azalpena	Martxoaren 13an 6/2020 deketuaren bidez Lehendakariak hezkuntza zentroen itxiera agindu zuen. Horren aurrean, Azpeitiko Udalak urgentziazko diru-laguntza tramitatu zuen 0-12 urte bitarteko haurren zaintzarako eragozpenak arintzeko laguntzak eta eguneko zentro nahiz beste antzeko zerbitzuen itxieraren ondorioz dependienteen zaintzarako eragozpenak arintzeko. Lerro honen barruan sartzen dira: 1.a) Zaintzara bideratuta egin diren <u>kontratazioak diruz laguntzea</u> 1.b) Adingabeen edo mendekotasuna duten pertsonen zaintzarako <u>soldatarik gabeko baimen eskaerak eta antzekoek sortutako kalteak konpentsatzeko laguntzak.</u> Laguntza 1.000,00€koa izango da gehienez beti ere hilabete bateko

	epea eta bizikidetza unitate bakoitzeko bat erreferentzitzat hartuz. Oinarriak eta deialdia martxoaren 23an argitaratu ziren, GAO 55zk.dun aldizkarian eta diru-laguntza hau eskatzeko epea apirilaren 16an amaitu zen. Diru-laguntza martxan egon den bitartean 15 eskaera jaso dira. Dena den, eta ikusita alarma egoeraren eraginak oraindik ere ez direla amaitu zaintzarako beste lerro bat aterako da, kontratazioak diruz laguntzera bideraturikoa. Eredu honetan kontuan izan behar dugu Eusko Jaurlaritzak atera berri duela laneko eta familiako bizitzaren kontziliaziorako laguntza. Baina laguntza lerro horrek ez ditu zaintzara bideratutako kontratazioak diruz laguntzen. Beraz, gure laguntza lerroa kontratazioetarako izango da.
GASTUA	300.000,00€ <i>*Kreditu aldaketa bidez finantzatua*</i>

2	TXIKIZKAKO KOMERTZIO NAHIZ OSTALARITZA ETA ANTZEKO ESTABLEZIMENDUEN ITXIERAREN ONDORIOZ SORTARAZITAKO KALTE EKONOMIKOEN ERAGINA GUTXITZEKO LAGUNTZAK
Azalpena	Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako Alarma Egoeraren deklarazioaren ondorioz, beraien establezimenduak istera behartuak izan diren txikizkako komertzio, nahiz ostalaritza eta antzeko establezimenduetan sortarazitako kalte ekonomikoak arintzea du xedetzat laguntza honek. Zehazki honako egoera hauei laguntzea du helburu: . Komertzio nahiz bestelako establezimenduen itxiera aginduak sortzen dituen galera ekonomikoak . Ostalaritzaren itxiera aginduak sortzen dituen galera ekonomikoak . Zeharkako bestelako ondorioak Oinarriak eta deialdia martxoaren 23an argitaratu ziren, GAO 55zk.dun aldizkarian eta diru-laguntza hau eskatzeko epea apirilaren 16an amaitu zen. Diru-laguntza lerro honetan guztira 387 eskaera jaso dira Udalean.

GASTUA	300.000,00€ <i>*Kreditu aldaketa bidez finantzatua*</i>
---------------	---

3	GIZARTE BAZTERKERIAKO ETA BEHAR LARRIKO EGOEREI AURRE EGITEKO NORBANAKO ETA FAMILIENTZAKO BIDERATUTAKO UDAL LAGUNTZA
Azalpena	Azpeitiko Udalak 2020ko udal laguntzen deialdia argitaratu du, ekonomikoki egoera zailenetan dauden herritarrek babesteko. Aurtengo deialdia egokitu egin da, COVID-19 dela-eta sortutako alarma egoerak behar berriak ekarri dituelako. Alarma egoerak irauten duen bitartean izandako diru-sarrerak izango dira kontuan diru-laguntza ebazterakoan, ikusi delako hainbat herritarren lan-egoera aldatu egin dela martxoaren 15ean alarma egoera ezarri zenetik, , hau da, nahikoa izango da alarma egoerak irauten duen bitartean diru-laguntzako baldintzak betetzea. Oinarrizko beharrei erantzuteko bideratuko da. Honako beharrak daude oinarrizko gisa zehaztuta, besteak beste: • Alokairua ordaintzea. • Elikagaiak erostea. • Osasun eta farmazia produktuak eskuratzea. • Ura, gasa, argindarra eta halako hornikuntzak finantziatzea Lerro horren bitartez, pentsio baxua duten adinekoei ematen zaien 1.080 euro arteko laguntza osagarria ere bideratuko da, baita adin txikikoen eskolaz kanpoko jardueretarako beka ere. Horrekin batera, gizarte larrialdietarako diru-laguntzak aurreratu, eta urteko lehen ordainketak egingo ditu Azpeitiko Udalak Oinarriak eta deialdia apirilaren 15ean argitaratu ziren, GAO 69zk.dun aldizkarian eta diru-laguntza hau eskatzeko epea abenduaren 20an amaituko da.
GASTUA	362.000,00€ <i>*2020ko Aurrekontuetan jasotako zenbatekoa. Edozein kasutan ere, eta beharrek hala eskatuz gero, partida handitu daiteke dagokion kreditu aldaketaren bidez.*</i>

4	COVID-19 BIRUSAK KALTEBERA EKONOMIKOAN UTZI DITUEN HERRITARREN ERRENTA NAHIZ MAILEGU GASTUEI ERANTZUTEKO DIRU-LAGUNTZA
Azalpena	COVID-19 birusa hedatzearen ondorioz kaltebera ekonomikoan geratu diren herritarren errenta nahiz mailegu gastuak finantzatzea du helburutzat. 2020ko apirila eta maiatzean diru-sarriren

	murrizketa jaso duten norbanako nahiz familiei bideratutako laguntza da. Honako baldintza hauek ditu oinarri diru-laguntzak: • Diru-sarrerren murrizketa: apirilean eta maiatzean familiako diru-sarrerak murriztu izana. Hori bermatzeko, kontratupeko langileen kasuan, langabezian edo ERTEan gelditu izana egiaztatu beharko da. Autonomoen kasuan, diru-sarreretan edo salmentetan %40 edo gehiagoko beherakada jasan duela egiaztatu beharko dute. • Alokairua edo mailegua ordaintzera bideratutako batez bestekoa: eskatuko da ordaindu beharreko alokairua edo mailegua diru-sarrerren baturaren %30 baino gehiago izatea. • Diru-sarrera gordinak: Hilabete bakoitzeko diru-sarrera gordinak ezingo dute izan 1.500 euro baino gehiagokoak pertsona bakarraren kasuan; eta 2.500 euro baino gehiagokoak, pertsona bat baino gehiago bizi diren familia unitateetan. Gehiengo kopuru horiek kontuan izanda, diru-sarrerren arabera ebatziko da alokairu edo maileguaren zein batez besteko lagunduko den, beti ere, gehienezko laguntza kopurua 250 euro izanda Oinarriak eta deialdia apirilaren 21ean argitaratu ziren, GAO 73zk.dun aldizkarian eta diru-laguntza hau eskatzeko epea ekainaren 15ean amaituko da.
GASTUA	80.000,00€ <i>*2020ko Aurrekontuetan jasotako zenbatekoa*</i>

5	BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZETAKO MAIZTERRAK ERRENTA ORDAINTZETIK SALBUESTEA
Azalpena	2020ko martxoaren 31ko Agindu bidez Erkidego Autonomoko etxebizitza sare publikoan alokairuan bizi diren pertsonak apirila, maiatza eta ekaineko alokairuak ordaintzetik salbuesiak geratzeko aukera izango dute, beti ere ezarritako baldintzak betez gero. Hori ikusita, Azpeitiko Udala, Azpeitia Berritzenen bidez, ekimen horretara atxiki da eta guk ditugun babes publikoko etxeetan alokairuan dauden maizterrak ere salbuespen honetaz baliatzeko aukera izango dute. Salbuespen hori lortzeko, Azpeitia Berritzen S.A.ri egin behar zaio eskaera. Oinarriak eta deialdia apirilaren 2an argitaratu ziren, EHAA 1771zk.dun aldizkarian eta diru-laguntza hau eskatzeko epea maiatzaren 31an amaituko da.

	Eskaerak guk bideratzen baditugu ere salbuespenaren onarpen / ezeztapenaren ebazpena Eusko Jaurlaritzak emango du eta berak hartuko ditu bere gain salbuespenaren ondorio ekonomikoak.
GASTUA	0

6	ALOKAIRUKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI OROKORRA
Azalpena	Azpeitiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten edo 2020ko urriak 15 baino lehen alokairu erregimenean kontratu bat sinatzeko konpromisoa hartuko duten kolektibo desberdinei (18 eta 35 urte bitarteko gazteak, mugikortasun urria edo/eta ezgaitasun absolutoa duten pertsonak, bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak, 70 urtetik gorako pertsona eta alargunei) alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzera bideratutako diru-laguntza da. Oinarriak eta deialdia apirilaren 21ean argitaratu ziren, GAO 73zk.dun aldizkarian eta diru-laguntza hau eskatzeko epea urriaren 15ean amaituko da.
GASTUA	100.000,00€ <i>*2020ko Aurrekontuetan jasotako zenbatekoa*</i>

7	UDAL ZERGEN ORDAINKETEN ATZERAPENA eta SALBUESTEA
Azalpena	2020ko martxoaren 20an izandako ez ohiko plenoan 2020ko Zergen egutegi fiskala aldatu zen. Udaleko zerga nahiz tasen ordainketa 2020ko irailaren 15era arte luzatzeko aukera onartuz. Araudi aldaketa: 2020ko maiatzaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean honakoa argitaratu da: 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen. Bere 3. artikulua honako aukera hau aurreikusten du: Udal TASETAN hobariak ezartzeko aukera eta gainera 2020ko urtarrilaren 1era arteko ATZERAERAGINA izan

	ahalko dutela. Beti ere, hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboari aplikatu ahal izango zaizkie. Eremu honetako proposamenak: *Terraza eta azokako postuen kasuan, lurraren okupazioagatik ordaintzen duten tasa ez kobratzea jarduera itxita eduki behar izan den denboran (eta beti ere kontzeptu horri dagozkion aurreko ekitaldietako zenbatekoa ordainduta edukiz gero) *Zaborraren tasa ez kobratzea jarduera itxita eduki behar izaten duten establezimenduei eta beti ere itxiera epe horri dagokionean. *Hobariak ezartzea Kirol instalazioen erabilerari eragiten dioten tasetan
GASTUA	0

8	TOKIKO KONSUMOA SUSTATZEKO BONOAK eta EKIMEN HAU ETA ANTZEKOAK BABESTEKO KOMUNIKAZIO KANPAINA
Azalpena	Helburua: Covid-19 birusak eragindako krisiaren ondorioz kaltetuak izan diren Azpeitiko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreetan kontsumoa sustatzea; konkretuki honako esparru hauek bultzatzea: • Covid-19 birusak eragindako krisiak kaltetutako herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreetan erosketak sustatzea. • Kontsumitzaileek, udalerriko bizilagunek zein Azpeitian kontsumitzen duten bisitariek, hobaria eskuratu ahal izatea Azpeitiko saltokietan erosteagatik. Bono hauek helburu bikoitz bat dute. Batetik, herritarrak sentsibilizatzea /jabetuaraztea herriko komertzioetan erosteak duen garrantziaz, batez ere gazteak, herritik kanpo nahiz internet bidezko erosketak gehien egiten dituztenak direlako. Bestetik, kontsumoa suspertzea herrian bertan. Bono hauek sustatzeko Udal aurrekontuko Ekonomia, Enplegua eta Formazioaren alorrean dagoen 31.000€ko partidari 50.000€ gehituko zaizkio Diruzaintza Gerakina erabiliz. Azpeitiko Udalak

	Bertan Azpeitiko Merkatarien Elkarteari 50.000€ko diru-laguntza zuzena emango dio. Horretarako, tokiko kontsumoa sustatzeko kanpainaren oinarriak landu dira, zehaztapen guztiak jasoz. Azpeitiko Udalak 50.000€ bideratuko dizkio Elkarteari eta hauek izango dira bonoen kudeaketaz arduratuko direnak. (Salmenta eta dendariei ematea Udalak salmenta bakoitzekiko egingo dion diru aportazioa.) Asmoa da 50 €ko bonoak ateratzea- gero zenbateko txikiagoetan banatuak egon daitezkeenak-. Herritarrak bono horietako bakoitzarengatik 35 € ordainduko lituzke eta Udalak beste 15 € jarri. Guztira 3.000 bono ateratzea da nahia eta bakoitzeko 15 € ko ekarpena egingo du Udalak 45.000 € diru aportazioa egitea bonoei dagokionez eta beste 5.000 € komunikazio kanpainara bideratzea. Komunikazio kanpaina: Kanpaina hau aprobetxatuz, herriko bizimodua dinamizatzeko ekimen ezberdinak martxan jartzea aurreikusten da. Klean zehar ikuskizunak jarritz, dendarien produktuak establezimenduetatik kanpo saltzeko aukera aztertuz eta nolabait herria bizirik dagoenaren erakusle izan daitezkeen ekimen ezberdinak sustatuko dira. 50.000€ko inbertsioarekin 150.000€ko gastua ahalbidetuko da. <i>Ze establezimendutan erabili ahal izango dira bonoak?*</i> oinarriak jasotzen dituzte zehaztapen guztiak* Alarma egoeraren deklarazioaren ondorioz istera behartuak izan diren lekuetan erabili ahal izango dira. Eta nahiz eta bono hauek BERTANen bidez kudeatu, kanpainan parte hartu dezakete txikizkako komertzio eta establezimendu guztiek (BERTAN Elkarteko kide izan edo ez)
GASTUA	50.000,00€ <i>*Kreditu aldaketa bidez finantzatua*</i>

· TURISMO BONOAK

Eremu honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak proposamen bat diseinatu du, kontsumoa sustatzeko erakunde arteko programa bat, bonu sistema baten bidez. Bonuak EAEko merkataritza, ostalaritza eta turismo sektoreetako establezimenduetan

erabili ahal izango dira.

Programa hau gainerako administrazioei irekita dagoen ekimen bat da, eta Euskadiko udalei aukera eskainiko zaie parte hartzeko.

Esan , ekimen hau oraindik ez dela martxan jarri eta EUDELen lantzen ari direla. Udalei ekimen honen berri eman zaie, bertan parte hartu edo ez balora dezaten. Hori guztia, programaren xehetasunak erabat zehaztu gabe, dagozkion talde teknikoek zehaztuko baitituzte xehetasun horiek.

Kanpainaren inguruko zehaztasun gehiago izandakoan eta EUDELen aztertu ondoren Azpeitiko Udalak erabaki beharko du kanpaina horretara atxikitu edo ez eta ze baldintzetan.

9	ETXKO GASTUAK FINANTZATU ETA ALDI BEREAN GREMIOAK MUGITZEN DITUZTEN JARDUERAK DIRUZ-LAGUNTZEA: ETXEBIZITZETAKO ENERGIA AURREZTEKO JARDUERAK....
Azalpena	Etxeko gastuak finantzatu eta aldi berean gremioak mugitzen dituzten jarduera ezberdinak diruz lagunduko dira. Horien artean: · Eraikuntzetako fatxadak birgaitzea · Bizileku-erabileratarako eraikinetan dauden etxebizitzetan irisgarritasuna sustatzeko jarduerak · Energia aurreztera bideratutako lanak eta antzekoak
GASTUA	40.000€ <i>*2020ko Aurrekontuetan jasotako zenbatekoa*</i>

10	HERRIKO EKONOMIA SUSTATZEKO LAGUNTZAK
Azalpena	Ekonomia sustatzeko laguntzek xede nagusitzat berpizte ekonomikoa izan dute, enpleguaren sorrera sustatuz, eta aldi berean, udalerriko enpresen lehiakortasuna sendotuz. Programa honen bidez, enpresa berriak merkaturatzea eta lehendik daudenak sendotzea berrmatuko duten ekintza-ildoak ezartzen dira, tokiko enplegua sortu eta mantentzea eta genero-berdintasuna nahiz garapen jasangarriarekin lerrokatutako ekonomia bultzatuko duten neurriak martxan jartzea helburu dutenak.

	Hori oinarrian izanik eta suspertze ekonomikoa ardatz hartuta Azpeitiko Udalak, LANBIDE eta gainontzeko erakundeek har ditzaketen neurrien kalterik gabe, eta bere eskumenen baitan, tokiko ekonomia sustatzearen aldeko apustu sendoa egingo du, enpleguaren sorkuntza ekarriko duten ekimen eta jarduerak herriaren onurakoak eta giza interesekoak aitortuz.
GASTUA	500.000€ <i>* Horietatik 250.000€ 2020ko Aurrekontuan aurreikusiak zaudenak eta beste 250.000 kreditu aldaketa bidez finantzatuko direnak*</i>

10.1	MERKATARITZA ARLOAN ETA LEHEN SEKTOREAN ENPLEGUA ETA EKONOMIA SUSTATZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK
Azalpena	Merkataritza arloan eta lehen sektorean bereziki enpleguaren sorrera sustatzera bideratutako diru-laguntzak dira. Era berean, diru-laguntza lerro honen helburua da merkataritzako eta lehen sektoreko jarduerak diruz laguntzea, bi arlo hauek indartzeko azken helburua lortzeko. Ondorioz, honakoak dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak: A) LANGILEAK KONTRATATZEA Lehen sektoreari eta merkataritza arloari laguntza berezi bat eman nahi zaio, lana aurkitzeko erraztasuna hobetuko duten neurriak jaso bai eta langileen lan baldintzen hobekuntzarako, aldi baterako nahiz kontratu mugagabeak lagunduz. B) MERKATARITZA ARLOKO LEHIAKORTASUA ETA LEHEN SEKTOREA SUSTATZEKO EKINTZAK EDO JARDUERAK EGITEA (OSTALARITZA BARNE) Diruz lagungarriak izango dira: B.1) Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoa B.2) Lokalek edo komertzioek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak egokitze eta behar berrietara moldatzeko (adb; lokalak handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakusleihoak berritzea, etab.)

	B.3) COVID-19aren eraginez hartu beharreko prebentzio neurriak ezartzeko egindako gastuei aurre egiteko laguntza (beharrezko EPIak, hidrogelak, manparak eta antzekoak jartzea, lokaletan egin beharrezko obrak eta antzeko hornidura nahiz lanak). Beti ere prebentzio neurrien betetzeari loturikoak eta lokal bakoitzarekiko diru muga batekin. B.4) Web orrien eraketa edota mantenua B.5) Digitalizazioa, ikerketa, berrikuntza edota garapenekoak izatea C) LEHEN SEKTOREA EZARRI, ERABERRITU EDO FINKATZEA Lehenengo sektorean enpresak ezarri, eraberritu edo finkatzeko inbertsioak sustatu nahi dira, honako helburuak lortzeko asmoz: - Nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumen arloko jasangarritasuna hobetzera bideratutako jarduketak bultzatzea. - Nekazaritza-ustiapenetara nekazari gazteak sartzea bultzatzea. D) MERKATARITZAKO (ZERBITZUAK BARNE) EDO LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK JARTZEA E) MERKATARITZAKO (ZERBITZUAK BARNE) EDO LEHEN SEKTOREKO JARDUERA BERRIENTZAT ZUZENDUTAKO LOKALEN ALOKAIRUAK F) AZPEITIAN KOKATUTAKO MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUENTZAT (ZERBITZUAK BARNE) MERKATU AZTERKETAK EGITEA
GASTUA	100.000,00 € + 75.000,00

10.2	INDUSTRI PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO BERRITZAILEEN BITARTEZ ENPLEGU SUSTAPENA FINANTZATZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK
Azalpena	Laguntza hauen bidez Azpeitian industria-proiektu estrategiko eta berritzaileak, genero-berdintasunerako neurriak, ingurumen-jasangarritasunaren sustapena, inbertsio proiektuak eta jarduera berriak bideratzea nahi da. Eta nola ez enplegu-sorrera. Honakoak dira eremu honetan diruz lagunduko diren jarduerak:

1.- 49 langile edo gutxiagoko enpresetarako INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK eta berritzaileak exekutatu eta garatzea.

Diruz lagundu ahal izango diren proiektuak honako irizpide hauek bete beharko dituzte (eskematikoki jarrita)

-Enpleguak sortzen dituztenak edo horretarako potentziala dutenak izan behar dute

-Digitalizazioa, ikerketa, berrikuntza edota garapenekoak izatea

-Eskualdeko ekonomi-ehuna dibertsifikatzeko balio dutenak

-RIS3 Euskadirekin bat datozenak izatea

2.- Instalazioak egokitu eta erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea, 49 langile edo gutxiagoko enpresentzat.

Diruz lagunduko diren inbertsioak:

- Instalazioak egokitu eta erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea. Gutxienez 60.000€ko inbertsioa egin behar da.(49 langile edo gutxiagoko enpresentzat)

- AUTOKONTSUMO ELEKTRIKORAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOETAN inbertsioak egitea (ETE edo enpresa handia).

3.- INDUSTRIA JARDUERA BERRIAK modu finkoan AZPEITIKO UDALERRIAN EZARTZEA

Bete beharreko baldintzak:

- Enpresak gutxienez 30 langile izan behar ditu.

- Industria jarduera berriak 700.000€ko inbertsioa egin behar du gutxienez.

- Industria jarduera berriak enpleguari eutsi beharko dio edota enplegua sortu beharko du 36 hilabetez gutxienez.

4.- GENERO BERDINTASUNA BULTZATUKO DUTEN NEURRIAK EZARTZEA, berdintasun -planak eginez eta instalazioak egokitzeko inbertsio zehatzak bideratuz.

Diruz lagunduko diren jarduerak:

- Enpresak bere BERDINTASUN PLANA egin beharko du. (100

	langile edo gutxiagoko enpresentzat) - Emakumeentzako instalazioek egokitzeko inbertsioak egitea: aldagelak, bainugelak dituzten aldagelak...
GASTUA	110.000,00 + 50.000,00 €

10.3	EKINTZAILETASUNA SUSTATUZ, BEREZIKI GIZARTE EKONOMIAN ETA IZAERA ESTRATEGIKOA EDO BERRITZAILEA DUTEN JARDUERETAN ENPLEGUAREN SORRERA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZA
Azalpena	Laguntza hauen bidez <u>ekintzailetasuna sustatu nahi da</u>. Bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueratan enpleguaren sorrera bultzatzera bideratuta daude. Araudi honen ondorioetarako lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiaketa komunitarioko kooperatibak eta lan sozietateak <u>soilik</u> joko dira gizarte ekonomiako enpresatzat, <u>Baldintzak</u>: Enpresa berria sortu duen edo sortuko duen pertsona ekintzailea langabezian egotea enpresa eratzerakoan.
GASTUA	40.000,00 + 25.000,00 €

11	LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK
Azalpena	Eremu honetan arreta berezia eskaini beharko diogu LANBIDEK aurreikusten dituen laguntzei. Une honetan ez dago LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA OROKORRIK. Kontrataziorako laguntzak kolektibo berezi batzuei daude bideratuta: *Langabezian dauden GAZTEEI zuzendutako LEHEN AUKERA 2020 Programa *Bere garaian atzerrira joan zirenak bueltatu eta hemen kontratatzeako laguntzak * Eta hobariak.

	* ESKUALDEKO ENPLEGU PLANEAN aurreikusitakoak (guk urtero kudeatzen ditugu eskualdeko eskaera guztiak, 6 hilabeteko eta lanaldi osoko kontratu bakoitza 12.500€z finantzatzen da) Planaren aurkezpenean adierazi bezala batez ere epe ertainera begira – ERTEak gehienez ere ekainaren 30era arte luzatuko dira, langabezia tasaren igoera...-hartu beharko diren neurriek – besteak beste langabetuen kontratazioaren sustapena, herriko gremioak nahiz beste arloak bizirik mantentzeko ekimenak..-egoeraren analisi bat eskatzen dute. Eta orain aurkeztu dugun Plan hau izango dugu ekimen ezberdin horien markoa eta sostengua. COVID-19ak krisi larri baten aurrean jarri gaitu, krisi humanitarioa, soziosanitarioa eta ekonomikoa. Egunerokoan sortu dituen kalteak azkarrago ikus badaitezke ere, datozen aste eta hilabeteetako bilakaerak erakutsiko digute beste eremuetan sortutako eragin edota marrazki errealago bat. ERTEEN bilakaera, langabezia tasaren gorakada gordina eta genero, adin nahiz sektorezkakoa aztertu beharko da eremu honetan eraginkorrak izango diren neurriak hartzeko. Agerian da langabetuen kopurua handituko dela eta gure asmoa da <u>kolektibo hori berriro ere lan munduan txertatzeko eta noski beraien lan-baldintza duinak bermatzeko saiakera egitea.</u> Beti ere eremu honetan eskumena duten gainontzeko erakundeekin bat eta hurbiltasun printzipioa oinarri izanik. Guzti hau oinarrian izanik KONTRATAZIO BERRIAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK bideratuko ditugu. Modalitate ezberdinetan gauzaturikoak: · LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIOA · KONTRATU TENPORALA AMAITU ETA KONTRATUA LUZATZEA · ALDI BATERAKO KONTRATUA INDEFINIDOA BIHURTZEA
GASTUA	75.000,00 €

12	LANGABETUEN FORMAKUNTZA ETA LAN MERKATUAN SARTZEA ERRAZTUKO DUTEN NEURRIAK SUSTATZERA BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK
Azalpena	Guztia, kontuan izanik langabetuen prestakuntza eta formakuntza langabetuen eta langileen lan baldintzak hobetzeko herramientarik onenetakoa dela. LANGABETUEN FORMAKUNTZA ETA LAN MERKATUAN SARTZERA ERRAZTUKO DUTEN JARDUERAK
GASTUA	25.000,00 €

AURREKONTUA	
1.- Zaintzarako laguntzak	300.000,00€
2.- Txikizkako komertzio nahiz ostalaritza eta antzeko establezimenduentzako diru-laguntzak	300.000,00€
3.- Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako udal laguntzak	362.000,00€
4.- COVID-19 birusak kaltebera ekonomikoan utzi dituen herritarren errenta nahiz mailegu gastuei erantzuteko diru-laguntza deialdia	80.000,00€
5.- Babes publikoko etxebizitzetako maizterrak errenta ordaintzetik salbuestea	
6.- Alokairurako diru-laguntzen deialdi orokorra	100.000,00€
7.- Udal zergen ordainketen atzerapena	0
8.- Tokiko kontsumoa sustatzeko bonoak eta ekimen hau eta antzekoak babesteko komunikazio kanpaina	50.000,00€
9.- Etxeko gastuak finantzatu eta aldi berean gremioak mugitzen dituzten jarduerak diruz laguntzea: etxebizitzetako energia aurrezteko jarduerak...	40.000€
10.- Herriko ekonomia sustatzeko diru-laguntzak:	
10.1.-Merkataritza arloan eta lehen sektorean enplegua eta ekonomia sustatzera bideratutako diru-laguntzak	100.000,00€+ 75.000,00€
10.2.-Industria proiektu estrategiko edo berritzaileen bitartez enplegu sustapena finantzatzera bideratutako diru-laguntzak	110.000,00€ +50.000,00€
10.3.-Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko diru-laguntzak	40.000,00€ +25.000,00€

11.- Langabezian dauden pertsonen kontrataziorako laguntzak	75.000,00€
12.- Formazioarako laguntzak	25.000,00€
KALKULATUTAKO AURREKONTUA, GUZTIRA	1.700.000€